

# Lekunberrik

HERRI NORTASUNA  
IDENTIDAD DE PUEBLO



Lekunberri,  
aurreruntz  
jarraitzen duen  
herria

2022 abendua | 4#

DL NA 731-2020



Lekunberriko Udala  
Ayuntamiento de Lekunberri



# Arakil eta Lekunberri arteko gasbideak

## gas hornidura ziurtatuko du urte osoan

Arakil eta Lekunberri lotuko dituen gasbideak urte osoan zehar gas-hornidura bermatuko du, eguraldia edozein delarik ere.

Horniduraren jarraitutasunaz eta bermeaz gain, udalerrian salgai arriskutsuen garraioa eta garraio horrek sortutako CO2 emisioak murriztuko dira. Bestalde, gasbideak aukera emanen du enpresak kontsumo mugarik gabe ezartzeko, eta horrek bailarako enplegua eta garapen ekonomikoa sustatuko ditu.

Beraz, gure herrian segurtasuna areagotu eta mota horretako ibilgailuen trafikoa murriztuko da. Urte askotan zehar Lekunberri eragin dion arazo bat konponduko duen azpiegitura da. Beharra nabaria zen eta, azkenean, konpondu ahal izango da.

Gasbidea Etxeberriko banaketa saretik abiatuko da eta Albiasualde industrialderaino iritsiko da, 15 kilometro inguruko trazadura jarraituz. Garrantzitsua da

azpimarratzea, horrek enpleguaren sorrera sustatzeko balioko duela, kalitateko eta hurbileko enplegua bultzatzen jarraituko baitu, Lekunberriren eta inguruaren garapen ekonomikoa indartzearekin batera.

Aukera guztiak behar bezala baloratu ondoren, txosten teknikoek proposamen bideragarriena dela erakutsi dute. Auzitegi Gorenak ebatzi duenez, lan bideragarria da, bai teknikoki, ekonomiki eta ingurumenaren aldetik ere, eta onura ekarriko die bai herritarrei bai gure herrian kokatuta dauden enpresei.

## Lekunberri “CEL toda Navarra” proiektuan sartzean, eguzki plakak jarriko dira udal teilatuetan

Lekunberri “CEL Toda Navarra” proiektuan parte hartzen duten udalerrietako bat da. Proiektu honen puntu garrantzitsuenetako bat udal eraikinetan eguzki plakak jartzea da, subiranotasun energetikorantz aurrera egiteko eta CO2 emisioak murrizteko. Plaka fotovoltaikoak instalatuz, 0 Km-ko energia sortuko da, faktura elektrikoan % 25 aurrezteko aukera emanez.




Beraz, interes handiko proiektua da Lekunberri bizi diren pertsona guztientzat, eta onurak eta abantailak eskainiko ditu iraunkortasun ekonomiko, sozial, ingurumeneko eta energetikoko arloetan.

# Umore ona eta alaitasuna nagusi izan ziren Lekunberriko 2022ko jai parte-hartzaileetan

Urriaren 7tik 12ra gure jaiak ospatu ahal izan genituen. Aurten ere, umore ona eta alaitasuna izan ziren nagusi jardueraz eta dibertimenduz betetako egunetan.

Herri-bozketa bidez aukeratuta, Inma Etxarrak piztu zuen jaien hasierako suziria. Bere aukeraketarekin, lekunberritarrek 25 urte baino gehiagoz Lekunberrientzat egindako lana eskertu nahi izan zioten, kultur jardueren arima izanik, hamaika ekimen burutuz eta gure ondarea berreskuratzen eta balioan jartzen lagunduz.

Une horretatik aurrera, txikiak eta helduek oso ondo gozatu ahal izan zituzten sei egunei hasiera eman zitzaion.



## Lekunberriko informazio panelak jarri ditu, herritar eta bisitarien mesederako

Azken hilabete hauetan hainbat panel jarri dira gure udalerrian. Alde batetik, seinaleztapen turistikoko hiru panel jarri dira, bisitatu beharreko punturik enblematikoenak aurkitu ahal izateko. Gainera, zerbitzuak, azpiegiturak, atrakzioak eta abar ere balioesten dira. Horrela, Lekunberriko xehetasunik gal ez dezaten, bisitariari lagundu egiten zaie.

Bestalde, Bizikletaren Plan Estrategikoaren barruan, herriko interesgune eta igarobide asko batzen dituen hiri zirkuitua diseinatu eta seinaleztatu da. Hala, aurrera egiten da mugikortasun jasangarria

sustatzeko helburuan.

Azkenik, aurten ere panel bat jarri da industrialdean. Honek, industrialdeko enpresak identifikatzeko balio du eta errazago egiten du enpresa bakoitzaren kokapena zein den jakitea.

Beraz, gure herrian hobekuntza txikiak egiten jarraitzen dugu. Desberdintasuna markatzen duten aldaketa txikiak direlako, eta guztion onura dakartelako.



**Aurrera pausoak trantsizio ekologikorantz**

# Energia komunitateak: bata udalekoa eta industrialala bestea

Lekunberrik tinko eusten dio trantsizio ekologikoaren aldeko apustuari. Hain zuzen, energia-erronkari aurre egitea da 2023ko aurrekontuen ardatz nagusietako bat.

Azken urteotan arlo horretan lan egin da, baina, 2023rako, aurre-rapauso handia eman nahi da energia-komunitateak sortuz, bata industrialala eta bestea udalekoa. Energia-eredu berrizaila horrek panel fotovoltaikoak instalatzea proposatzen du, energia partekatua sortzeko.

Argi gehien dagoenean, plakek

energia gehiena emango dute. Argi gutxien dagoen umeetan, plakek energiaren zati bat emango dute eta Sare elektrikoak beste bat. Eta gauez energia guztia sare elektrikoak emango du, beti ere %100 berriztagarria.

Izan ere, Lekunberri energia-trantsizioaren alde egiten dugu, energia-subirantotasunaren, energia berdeen, autokontsumoaren eta eraginkortasunaren eredura, eta bizilagunen, saltokien, ETEen eta tokiko erakundearen beraren tarifa elektrikoak murriztearen alde.



**Udalaren energia arloko aholkularitzak argibideak eman, zalantzak ala erreklamazioak argitu eta hilabeteen behin aholkuak ematen dizkie interesatuei.**

Aurten, zalantzarik gabe, energia izan da gehien aipatu den gaietako bat: trantsizio ekologikoa, energia-komunitateak, gasaren eta elektrizitatearen prezioaren igoera, Ukrainako gerraren ondorioz sortu den ziurgabetasun-egoera...

Horren guztiaren aurrean, Lekunberriko Udalak herritarren zerbitzura dagoen udal aholkularitza energetikoa izan du. Horri esker, nahi izan duten guztiak doan erabili ahal izan dute zerbitzu hori.

Energia-aholkularitzako zerbitzu horretan, hainbat gairi buruzko kontsultak egin

dira: energia-merkatuaren egoera eta bilakaera, fakturak, energia-efizientzia eta energia berriztagarriak, dirulaguntzak, elektrizitate- eta gas-fakturak eta gizarite-bonuak.

Herritarrei egoera eta fakturak ulertzen laguntzeaz gain, sortu diren zalantzei eta galderei erantzun zaie, eta tarifak kontratatzeari buruzko aholkuak eman dira edo erreklamazioak jartzeko prozesuan lagundu da.

# Gure herria atseginago egiten jarraitzeko, udalak biribilgune proiektua eta zeharbideko aldaketak aurkeztu ditu

Lekunberriko Udalak herriko sarreran biribilgune bat egiteko proiektu bat aurkeztu du, San Migeleko bidegurutzeko segurtasun arazoak konpontzeko. Lekunberriar askok gune arriskutsu bezala identifikatutako puntua da, eta udalak erantzun bat eman nahi izan du.

Gainera, mugikortasunarekin jarraituz,

zeharbidean aldaketa garrantzitsuak egin nahi dira. Sareak aldatzeko lanak egin behar direla aprobetxatuz, espaloiak konpondu, errepidea estutu eta txirringularien joan-etorria hobetu nahi da. Horrek ibilgailuek abiadura txikiagoan zirkulatzeko ekarriko luke, txirringulariekin eta oinezkoekin bizikidetzaren hobetuz eta mugikortasun iraunkorrean aurrerapausoa

emanez.

Oraingoz, proiektua Nafarroako Gobernuari aurkeztu zaio, honek onar eta finantza dezan. Obren kostua 3,5 milioi euro ingurukoa da, eta 2024-2025ean egingo lirateke.



## Lekunberriko ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi gune ditu irailetik

Irailean, Frontoi Plazako eta Poligonoko ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak inauguratu ziren. Alde batetik, bi automobilaldi berean kargatzeko aukera ematen duen kargagailu super azkar bat instalatu da, eta, bestetik, potentzia txikiagoko bi kargagailu, eguneko 24 orduetan lau automobilaldi berean kargatzea ahalbidetzen dutenak.

Nabarmentzekoa da % 100eko energia berdea dela, iturri berriztagarrietatik datorrena. Lekunberri, beraz, Nafarroako elektroinera sarera batu da,

mugikortasun iraunkorraren arloan aurrera eginez.

Zerbitzu berri hau, gainera, bertakoek eta bisitariek erabiltzen dute, gure herria bisitatzeko eta ezagutzeko aprobetxatzen dutelarik. Eta kontuan hartuta oraingoz ez dela ohikoa horrelako instalazioak herri txikietan aurkitzea, aitzindari bihurtzen gaitu eta Lekunberri leku erakargarri eta modernoago bihurtzen du.



# Gabonetako magia lekunberrira iritsi da, Jarduera-programa batekin

Abendua ilusioaren hilabetea da. Horregatik, Udaletik jarduera programa zabal bat prestatu nahi izan dugu, guztiek, batez ere txikienek, garai berezi hau gozatzeko aukera izan dezaten.

Besteak beste, abenduaren 3, 4, 6, 8, 10, 11, 17 eta 18an Gabonetako azoka bisitatu ahal izango da 12:00-14:00 eta 17:00-19:00 ordutegietan. Gainera, abenduaren 22an Gabonetako argiak piztuko dira, 24an, urtero bezala, Olentzero etorriko da eta urtarrila-

ren 5ean Errege Magoen kabalgata izango dugu.

Informazio guztia eta gainerako jarduerak Udalaren komunikazio kanaletan kontsulta daitezke.



**Kontsultatu hemen  
eguberrietako programa**

## Lekunberri Garapen Elkarteko langileen ordezkariak hitzarmena hobetzeko akordioa sinatu dute

Joan den urrian, Nafarroako kirol-kudeaketako hitzarmenari atxikitako langileen ordezkariak sindikalak greba mugagabea deitzen zuen bitartean, horrek dakartzan ondorio guztiekin, Lekunberri, Lekunberri Garapen Elkarteko langileen ordezkariak hitzarmen partikularra hobetzeko akordio bat sinatu zuen, gure udalerriko kirol-instalazioek normaltasun

osoz funtzionatzen jarrai zezaten.

Gerentziak eta Lehendakariak baldintzak onartu eta Garapenen Administrazio Kontseiluak eta Lekunberriko Udalaren Osoko Bilkurak onartu ondoren sinatu zen. Akordioak, besteak beste, honako hauek jasotzen ditu: 2022. urterako % 6,6ko soldata-igoera, 2022ko urtarrilaren 1era

arterako atzeraeraginarekin; norberaren gauzetarako baimenaren egun bateko igoera, eta lehen mailako arretako medikuarengana joateko baimen ordainduaren urteko 12 orduko igoera.

